

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UR-MASEN EGOERA

### 2014KO KANPAINA

#### Laburtzeko dibulgazio-dokumentua



2015eko azaroa



**PERTSONA HELBURU**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO





## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UR MASEN EGOERA.

### KONTROLATZEKO SAREAK. 2014KO KANPAINA.

#### LABURTZEKO DIBULGAZIO-DOKUMENTUA

#### AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	1
2	KONTROL-SAREAK: ZER DIREN ETA ZERTARAKO BALIO DUTEN.....	2
3	ZER DA UR-MASEN EGOERA?.....	3
4	EAE-KO UR-MASEN EGOERA.....	6
4.1	Laburpen geografikoa eta hidrologikoa .....	6
4.2	Lurgaineko uren egoera .....	9
4.3	Lurpeko uren egoera .....	12



1. argazkia. Bentoseko edo itsas hondoko ornogabeak (AZTiren argazkia).

#### Argazkien identifikazioa

ITURRIA	IDENTIFIKAZIOA
Uraren Euskal Agentziaren dokumentuen funtsa	URA
AZTI TECNALIA Fundazioa	AZTI
Laboratorios Tecnológicos de Levante, SL	Levante laborategiak
Telur Geotermia y Agua, SA	TELUR
Anbiotek SL	ANBIOTEK
Ondoan S. Coop.	ONDOAN


Azaleko argazkian, Ibaizabal ibaia, Durangon (TELURen argazkia).



# 1 SARRERA

Duela hogei urte, [Eusko Jaurlaritzak](#) EAEko uraren kalitatea kontrolatzeko sarea ezarri zuen. 2008az geroztik [URA Uraren Euskal Agentzia](#) arduratzen da zeregin horretaz. Denbora honetan, EAEko urari jarraipena egiteko sareak kontrolerako guneak emendatu ditu, analisi-motak handitu ditu, eta gero eta zehatzagoak diren metodologiak aplikatu izan dira. Une honetan, kontrol-moten espezifikotasunaren ondorioz, bost dira EAEko uraren egoera aztertzeaz arduratzen diren sareak<sup>1</sup>. Haien txostenak [URaren liburutegi digitalean](#) kontsultatu ditzakezu.

- EAEko ibaien egoera biologikoari jarraipena egiteko sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoari jarraipena egiteko sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masen egoerari jarraipena egiteko sarea.
- EAEko barnealdeko hezeguneen egoerari jarraipena egiteko sarea.
- EAEko lurpeko ur-masen egoerari jarraipena egiteko sarea.



## 2. argazkia. Oria eta Leitzarain ibaien elkargunearen argazki panoramikoa, Gipuzkoan (URaren argazkia).

2014 honetan sare horietarako guztietarako komuna den txosten bat gehitu dugu. Hain zuzen, alde batetik, nahiko luzea den txosten bat proposatzen dizugu, “interesdunentzat” izenburua jarri dioguna. Eta beste aldetik, esku artean duzun txostena laburpen sintetiko bat da, eta informazio adierazgarri eta esanguratsuena jasotzen du. Saiatu gara biek ala biek hizkuntza erraza, ulergarria eta atsegina izatea, baina, aldi berean, zehatza. 2010-2014 bosturtekoko datu nagusiak hartzen dituzten taula batzuk gehitu ditugu. Nolanahi ere, xehetasun gehiago behar edo nahi izanez gero, sare desberdinetako txostenak eskuratu ditzakezu, dokumentu luzeagoak eta informazio ugari dutenak baitira. Dokumentu horiek guztiak lehenago aipatu den URaren liburutegi digitalean daude eskuragarri. Gogokoak izatea eta interesa piztea espero dugu.

---

<sup>1</sup>Sare horiei beste erakunde batzuenak gehitu behar zaizkie: Kantauriko eta Ebroko ur konfederazioak, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak eta erakunde hornitzaileak.

## 2 KONTROL-SAREAK: ZER DIREN ETA ZERTARAKO BALIO DUTEN

Ur-masen egoerari jarraipena egiteko sareak UEZ [Uraren Esparru Zuzentarauaren](#) 8. artikuluan jasota dagoen betebeharrak dira. Hain zuzen, Europa osoan hierarkia handieneko araudia da zuzentarau hori, eta haren mende daude zenbait zuzentarau gehiago. UEZen 4. artikulua behartzen du, 2015aren amaiera baino lehen, Europako ur-masek “egoera ona”<sup>2</sup> izatera, nahiz eta luzapenak egin daitezkeen 2021. eta 2027. urteetara. Helburuak [Plan Hidrologikoetan](#) zehaztu behar dira. Egoera ona lortzen den zehazteko modua jarraipena edo kontrola egiteko sareen bidezkoa da. **EAEko mugapeetako plan hidrologikoek milioi askotako inbertsioak planteatzen dituzte:** 3.000 milioi euro 2015eko, 2021eko eta 2027ko denbora-mugetan. Inbertsio horien erdiek ingurumen-helburuetan jartzen dute arreta, hau da, ur-masen egoera ona lortzean. Horretarako, jarduketak planteatzen dira hondakin-uren arazketan eta saneamenduan (ingurumen-helburuen ildoaren bi heren) eta ingurunea hobetzean.

Neurrien ildoak	2015eko denbora-muga		2021eko denbora-muga		2027ko denbora-muga	
	€	%	€	%	€	%
<b>Ingurumen-helburuak betetzea</b>	<b>753.562.201</b>	<b>58,5</b>	<b>524.190.031</b>	<b>53,5</b>	<b>223.397.915</b>	<b>32,5</b>
Hornidura-helburuak betetzea	321.184.084	24,9	301.020.920	30,7	162.142.996	23,6
Uholdeei eta muturreko beste fenomeno batzuei aurrea hartzeko helburuak betetzea	159.309.928	12,4	128.269.400	13,1	278.577.400	40,6
Gobernantza, ezagutza eta kudeaketa	53.427.118	4,1	25.841.762	2,6	22.227.914	3,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.287.483.331</b>	<b>100,0</b>	<b>979.322.113</b>	<b>100,0</b>	<b>686.346.225</b>	<b>100,0</b>

1. taula. Neurrien programetarako inbertsioen laburpena, ildoaren arabera, EAEn. Iturriak: Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko mugapeetako plan hidrologikoak, 2009-2015 eta 2015-2021.

*Plangintza hidrologikoan ezarri diren ingurumen-helburuak betetzen diren edo ez zehazteko tresna dira kontrolerako eta jarraipenerako sareak. Hartara, helburuak ez badira betetzen, sareek oso baliagarria den informazioa ematen dute, arazoaren konponbideari aurre egiteko. Europako zenbait zuzentarau betetzea eta inbertsio publiko milioika euro daude jokoan.*



3. argazkia. Baia ibaia, Erribera Beitian, Araba (URAREN argazkia).

<sup>2</sup> Egoera ona zer den jakin nahi duzu? Kontsultatu laburpen honetako 3. atala.




### 3 ZER DA UR-MASEN EGOERA?


Uraren Esparru Zuzentarauan definizio hauek ageri dira:

- Lur-gaineko ur-masen egoera: “*lur-gaineko ur-masa baten egoeraren adierazpide orokorra, egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztutakoa*”.
- Lurpeko ur-masen egoera: “*lurpeko ur-masa baten egoeraren adierazpide orokorra, egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztutakoa*”.

#### LUR-GAINEKO UR-MASETAN EGOERA ZEHAZTEA



#### LURPEKO UR-MASETAN EGOERA ZEHAZTEA



**LUR-GAINEKO URETAN**, egoera zehazten da egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren bidez. **EGOERA EKOLOGIKOA** adierazle biologikoak (fitoplanktona, zooplanktona, hondoko edo bentoseko ornogabeak, arrainak,...), adierazle fisiko-kimiko orokorrak eta adierazle “hidromorfologikoak” baliatuta kalkulatzeko, adierazle biologikoak dira adierazgarrienak. Indizeek 0 (balio minimoa, alterazio maximoa) eta 1 (balio maximoa, alterazio minimoa) arteko balioa dute.



4. argazkia. Arrantza elektrikoa erabiltzen da ibaietan, arrainak harrapatzeko, kalterik eragin gabe. Arrainen egoeraren analisisa da egoera ekologikoa kalkulatzeko elementuetako bat (ANBIOTEKEN argazkia).


Egoera ekologikoa bost motatan sailkatzen da:

Mota	Esanahia	UEZen helburuak betetzen ditu?	Emandako kolorea
<b>Oso ona</b>	Alteraziorik gabe edo oso alterazio gutxi	<b>BAI</b>	<b>Urdina</b>
<b>Ona</b>	Distortsio balio txikiak	<b>BAI</b>	<b>Berdea</b>
<b>Neurritsua</b>	Desbiderapen neurritsua	<b>EZ</b>	<b>Horia</b>
<b>Eskasa</b>	Alterazio garrantzitsuak	<b>EZ</b>	<b>Laranja</b>
<b>Txarra</b>	Alterazio larriak	<b>EZ</b>	<b>Gorria</b>

2. taula. Egoera ekologikoaren sailkapena eta irudikapen grafikorako koloreak.

Lur-gaineko uren **EGOERA KIMIKOAK** elementu edo konposatu toxikoengatik kutsadura maila ezartzen du. Horretarako, "IKA Ingurumen Kalitateko Arau" esaten zaienak bete behar dira. Egoera kimikoa honela zehazten da:

- **Ona:** IKAk betetzen ditu eta, horrenbestez, UEZen helburuak.
- **Ez da onera iristen:** ez ditu IKAk betetzen eta, horrenbestez, ez ditu UEZen helburuak betetzen.



5. argazkia. Ur-laginen analisi kimikoa egiteko robota (Levante laborategien argazkia).

**Lur azaleko uren egoera da lur azaleko ur-masa baten egoeraren adierazpen orokorra, ur-masa horren egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren baliorik txarrena oinarri hartuta. . Honela sailkatzen da:**

- **Ona:** UEZen ingurumen-helburuak betetzen ditu.
- **Ona baino okerragoa:** ez ditu betetzen UEZen ingurumen-helburuak.

**LURPEKO URETAN**, egoera zehazten da egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren bidez. **EGOERA KUANTITATIBOAK** adierazten du lurpeko ur-masako baliabide hidrikoen gainean dagoen presio maila. Izan daiteke:

- **Ona:** UEZeko ingurumen-helburuak betetzen ditu. Epe luzera, ura erauzteko tasak ez ditu gaintitzen eskuragarri dauden baliabide hidrikoak.
- **Txarra:** ez ditu betetzen UEZen ingurumen-helburuak. Epe luzera, ura erauzteko tasak gaintitu egiten ditu eskuragarri dauden baliabide hidrikoak.





6. argazkia. Ibarruri A eta Cren lurpeko uren baterako saiakuntza (TELUREn argazkia).

Lurpeko uren **EGOERA KIMIKOA** zehazteak barnean hartzen du “IKA Ingurumen Kalitateko Arauen” betetze-maila. Egoera kimikoa honela zehazten da:

- **Ona:** IKAk betetzen ditu eta, horrenbestez, UEZen helburuak.
- **Txarra:** ez ditu IKAk betetzen eta, horrenbestez, ez ditu UEZen helburuak betetzen.

Lur azpiko uren egoera da lur azpiko ur-masa baten egoeraren adierazpen orokorra, ur-masa horren egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren baliorik txarrena oinarri hartuta.. Honela sailkatzen da:

- **Ona:** UEZen ingurumen-helburuak betetzen ditu.
- **Txarra:** ez ditu betetzen UEZen ingurumen-helburuak.

## 4 EAE-KO UR-MASEN EGOERA

### 4.1 Laburpen geografikoa eta hidrologikoa

Euskal Autonomia Erkidegoa Iberiar penintsularen iparraldean dago. Lurralde txikia da (7.234 km<sup>2</sup>), baina biztanleriaren dentsitatea handia da: 300 biztanle inguru daude kilometro koadro bakoitzeko. Zehazki, Espainiako dentsitatearen eta Europar Batasuneko batez beste-koaren hirukoitza da. Biztanle horiek lurraldean duten banaketa ez da homogenea. Izan ere, biztanleen %87 Kantaurira isurtzen diren arroetan bizi dira, eta gainerako %13a euren urak Ebro ibaira isurtzen dituzten arroetan. Biztanleen %60 inguru itsasertzetik 15 kilometro baino hurbilago bizi dira. Eta biztanleen %80 itsasertzetik edo estuarioetatik hurbil edo ibai nagusien inguruan pilatzen dira.



7. argazkia. Bilboko metropoli-eremuak EAEko biztanleen %35 hartzen ditu (URaren argazkia).

Euskal Autonomia Erkidegoan **176 ur-masa** zehaztu dira. UEZek kudeaketarako finkatzen dituen oinarritzko unitateak dira ur-masak. Ibaiak izan daitezke, edo haien zatiak, aintzirak, estuarioak edo haien zatiak...

Ur-masa mota	Mota kopurua EAEn	Ur-masen kopurua EAEn
<b>LURGAINEKOAK</b>		
Ibaiak	9	136
Urtegiak	3	12
Trantsizio-urak <sup>3</sup>	3	14
Kostaldeko urak	1	4
Aintzirak eta hezeguneak	7	10
<b>Lur-gainekoak, guztira</b>	<b>23</b>	<b>176</b>
<b>LURPEKOAK</b>	<b>3</b>	<b>37</b>

3. taula. Ur-masak, EAEn. Iturria: URA.

Euskadiko klima euritsua da Kantauri isurialdean eta uren banalerroan, eta inguru horretan guztian urteko prezipitazioak 1.000 mm-tik gorakoak izan daitezke. Ekialdean, Urumea eta Oiartzun ibaien buruan, urteko 2.500 mm-ko batez bestekoa gainditzea gerta daiteke. Hegoaldean, berriz, euria ez da hain ugaria: Ebrotik gertu, prezipitazioek ez dute ia gainditzen urteko 600 mm-ko maila.



8. argazkia. Urpeko uren ekarpen handiak izaten ditu Jugalez ibaiak. Ekarpen horien zati bat elur moduan egindako prezipitazioetatik hartzen du (TELUREn argazkia).

Ondoren dagoen taula honetan Euskadiko unitate hidrologiko edo arro desberdinen ekarpenak adierazten dira, 2010-2014 aldirako<sup>4</sup> (izan ere, aldi hori da dokumentu honetan erreferentzia moduan erabiliko duguna).

<sup>3</sup> UEZen terminologian, estuarioei "trantsizio-ur" esaten zaie. Txosten honetan era berean erabiliko ditugu bi terminoak.


<sup>4</sup>Urte hidrologikoak urriaren 1ean hasten dira eta hurrengo urteko irailaren 30ean amaitzen dira.



Unitate hidrologikoa	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	Batez bestekoa
Karrantza	92,8	77,5	113,3	159,0	93,3	92,0
Agüera	80,5	73,4	71,4	163,8	127,4	79,9
Ibaizabal	1.153,3	880,7	1.083,6	2.218,3	1.467,6	1.171,3
Artibai	90,6	74,5	84,5	178,0	108,3	88,1
Lea	90,6	82,8	84,2	167,1	105,7	79,9
Oka	135,1	115,2	129,7	256,0	172,9	150,0
Deba	380,9	303,5	344,3	691,3	437,5	441,0
Urola	247,6	227,6	292,0	508,7	302,3	260,5
Oria	712,9	675,6	793,3	1.439,2	922,3	800,3
Urumea	308,6	341,8	372,5	592,5	525,3	410,2
Oiartzun	99,6	107,1	118,3	190,2	150,6	92,3
Bidasoa	875,2	649,3	985,7	1.561,3	1.223,1	774,0
Omecillo	83,2	48,3	51,0	148,9	103,4	86,0
Baia	161,7	108,0	122,6	230,5	196,9	173,6
Zadorra	326,7	235,5	217,7	682,7	433,5	498,6
Ega	94,4	64,5	48,9	217,4	120,1	135,3
Jugalez	25,6	16,6	14,9	44,3	27,3	17,4
Arakil	57,9	40,9	47,5	116,2	69,1	53,1
<b>TOTAL</b>	<b>5.017,1</b>	<b>4.122,9</b>	<b>4.975,4</b>	<b>9.565,5</b>	<b>6.586,5</b>	<b>5.403,5</b>

4. taula. 2009-2010 eta 2013-2014 arteko urte hidrologikoetako urteko ekarpenak, hm<sup>3</sup>-tan, eta EAEko unitate hidrologikoen 1980-2010 segidako batez bestekoa. Datuen iturriak: URA, Kantauriko Ur Konfederazioa (CHC) eta Ebroko Ur Konfederazioa (CHE)

Ikusten da 2010-2011n ekarpenak batez bestekoak baino txikiagoak izan zirela. 2009-2010 eta 2011-2012 urte hidrologikoetako ekarpenak batez bestekotik gertukoak edo txikiagoak izan ziren. 2013-2014 urteko ekarpenak, aldiz, batez besteko historikokoak baino handiagoak izan ziren. Bere aldetik, 2012-2013 urtea euritsuena izan zen eta alde handiarekin, gainera: ekarpenak ia batez besteko historikoaren bikoitzak izan ziren. Hurrengo grafikoen, emariaren eguneroko batez bestekoak ageri dira, Ibaizabal ibaiaren amaieran.



1. grafikoa. Eguneroko batez besteko emariak, m<sup>3</sup>/s-tan, ur-emaria neurtzeko Abusuko estazioan, Ibaizabal ibaian, 2009-2010 eta 2013-2014 arteko urte hidrologikoetan. Datuen iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

## 4.2 Lur-gaineko uren egoera

Hurrengo taula honetan laburbilduta dago 2010-2014 bosturtekoan EAEko Lur-gaineko ur-masek izan duten egoera ekologikoa, egoera kimikoa eta egoera. Ikus daitekeenez, egoera kimiko ona egoera ekologiko ona baino askoz ur-masa gehiagotan lortzen da (egoera kimiko ona %87tan eta egoera ekologiko ona %53tan). **EAEko ur-masen %52k egoera ona zuten 2014an. 2009an, ordea, portzentaje hori %33koa zen, ia 20 puntu baxuagoa.** Europako hainbat herrialde garatutako egoera baino askoz hobea da.

Ur-masa mota	Kontrolatutako ur-masa kopurua	Egoera ekologiko ona baino hobea		Egoera kimiko ona		Egoera ona	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Ibaiak	136	75	66	120	89	75	66
Urtegiak	11	9	82	8*	100	9	82
Trantsizio-urak	14	2	14	9	64	1	7
Kostaldeko urak	4	4	100	4	100	4	100
Aintzirak eta hezeguneak	10	2	20	2*	100	2	20
<b>Guztira</b>	<b>175</b>	<b>92</b>	<b>53</b>	<b>143</b>	<b>87</b>	<b>91</b>	<b>52</b>


5. taula. EAEko Lur-gaineko ur-masak, egoera ekologiko ona, egoera kimiko ona eta egoera ona izan edo gaititu dutenak 2010-2014 aldian. \*: egoera kimikoa aintziretan eta hezeguneetan 2 ur-masatan baino ez da zehaztu; eta urtegiatan, 8 ur-masatan. Datuen iturriak: URA, CHC eta CHE.

**Egoera onena kostaldeko ur-masetan erregistratu da.** Denek lortu dute egoera ekologiko eta kimiko ona izatea, eta, beraz, denek egoera ona dute.



9. argazkia. EAEko kostaldeko ur guztiek egoera ona lortu dute (URAREN argazkia).

**Urtegiak eta ibaiak batez bestekoak baino egoera hobea dute:** urtegien %82k eta ibaien %66k UEZen helburuak betetzen dituzte.



10. argazkia. Arantzazu ibaiak, Gipuzkoan, egoera ona du (ONDOANen argazkia).




**Estuarioek eta aintzirek egoera desagokia dute.** Aintziren %20k eta estuarioetako ur-masen %7k egoera ona dute eta UEZen helburuak betetzen dituzte.



**11. argazkia.** Aintzira-motako ur-masa gehienek, besteak beste Salburuako honek, arazoak dituzte egoera ona lortzeko (URaren argazkia).

Emaitzarik txarrenak Butroe, Deba, Oiartzun eta Zadorra ibaien arroetan erregistratzen dira: haien ur-masa gehienek ona baino okerragoa den egoera dute. Ibaizabalen arroan, eremu zabalak daude ona baino okerragoa den egoera dutenak, baina, era berean, adar asko daude egoera onean. **Urumea eta Purón ibaien arroetan ur-masa guztiak egoera onean daude. Egoera zuzena duten beste arro batzuk Agüera, Lea, Artibai, Baia eta Omecillo dira.**



**1. irudia.** EAEko Lur-gaineko ur-masen egoera 2010-2014 bosturtekoan. Datuen iturriak: URA, CHC eta CHE.

## Historia apur bat


*Hondakin-uren arazketako eta saneamenduko lehen lan serioak EAEn 1980ko hamarkadan hasi ziren. Ordura arte, hirietako eta industriako isurketa guztiak inolako tratamendurik gabe egiten ziren, eta, ondorioz, larriki kutsatzen zituzten ibai, estuario, itsasertzeko eremu eta lurpeko ur asko. Hain zuzen, ondorio txarrenak Ibaizabal, Deba, Urola, Oria, Urumea eta Zadorra ibaien arroetan erregistratzen ziren, eta haietan ezinago kutsatuta zeuden eremuak zeuden.*



Playa de Orio. 1968

12. argazkia. Paper fabriken isurketen ondorioz, Gipuzkoako Orio herriko hondartzara iritsitako aparra, 1968an (URAREN argazkia).

*1980ko hamarkadatik orain arte eraiki eta ustiatu dira hiri-araztegiak eta murriztu da industrian jatorria duen kutsadura. Eta ondorioak begien bistakoak dira. Nahiz eta oraindik ez den lortu EAEko ur-masa guztietan egoera ona izatea, hobekuntza nabarmena da garai batean izugarri andeatuta zeuden zati askotan: 2014an, egoera ona lortu duten ur-masen kopuruak portzentajezko 20 puntu gaintu du 2009ko ur-masen kopurua. Grafikoan, oso esanguratsua den adibide bat ageri da: Bilboko itsasadarreko estazioak. Erabilitako indize biotikoak egoera ona lortu du kanpoen dagoen kontrol-estazioan (haren balioa zero zen 2001 arte) eta barneko gainerrako estazioetan egoera onaren mugatik gertu dago. **Nork ez zuen halakorik onartuko 1980an?***



2. grafikoa. M-AMBI indize biotikoaren bilakaera Bilboko itsasadarreko estazioetan, 1995 eta 2014 artean. On-Ne muga: onaren eta neurritsuaren arteko muga. Datuen iturria: URA.



### 4.3 Lurpeko uren egoera

Jarraian dagoen taula honetan laburbilduta dago 2010-2014 aldian EAEko lurpeko urek izan duten egoera kuantitatiboa, egoera kimikoa eta egoera. **Ikus daitekeen moduan, denek egoera kuantitatibo ona dute. Hiru baino ez dira onera iristen ez den egoera kimikoa dutenak, eta, horrenbestez, ez dira egoera onera iristen.**

Ur-masa mota	Ur-masen kopurua	Egoera kuantitatibo ona		Egoera kimiko ona		Egoera ona	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Lurpekoak	37	37	100	34	92	34	92

6. taula. EAEko lurpeko ur-masak, egoera kuantitatibo ona, egoera kimiko ona eta egoera ona izan edo gainditu dutenak 2010-2014 bosturtekoan. Datuen iturriak: URA, CHC eta CHE.

**Laburbilduz, EAEko lurpeko ur-masen egoera lur-gaineko ur-masena baino nabarmen hobea da.**




13. argazkia. Araia iturburua, Zirauntza ibaiaren sorburua, Araban (TELUREn argazkia).

Ondoren dagoen irudi honetan, EAEko lurpeko ur-masen egoera dago irudikatuta. Hasteko, adierazi behar da egoera txarrean dauden ur-masek oso txikia den eremua hartzen dutela, hain zuzen, Euskadiko eremuaren %2 baino txikiagoa.

Egoera txarrean dauden hiru masak hauek dira:

- **Gernikako ur-masa alubiala:** 2005ean istripuz gertatu zen isurketa toxiko batek eta 1990eko hamarkada baino lehenagoko industria-isurketek kalte eginda dago.
- **Gasteizko ur-masa alubiala:** nekazaritzatik heltzen zaizkion nitratoen kontzentrazi-oak handiak dira.
- **Miranda Ebroko ur-masa alubiala:** nekazaritzatik heltzen zaizkion nitratoen kon-zentrazioak handiak dira, eta, sektore batean, industriakoak iristen zaizkio.

Hiru ur-masa horietan, eremu batzuk hobetzen doaz pixkana, baina beste batzuetan kutsadu-rak bere horretan jarraitzen du.



2. irudia. EAEko lurpeko ur-masen egoera 2010-2014 bosturtekoan. Datuen iturria: URA.

Troia ur-masari meatzaritzako jardunak kalte egin zion eta metalengatiko kutsadura eragin zuen. Plangintza hidrologikoko aurreko aldiaren egoera txarrean zegoela adierazi zen. **Orain-goan, ordea, egoera kimiko eta kuantitatibo ona du.**